

IRAGARKIA

202. ALDIZKARIA - 2016ko urriaren 19a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK ITURMENDI

Aldaketa, Udal hilerriaren erabilera arautzen duen ordenantza eta Tasak arautzen dituen ordenantza. Behin betiko onespena

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza horren aldaketa behin betiko onetsi eta haren testua osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iturmendin, 2016ko abuztuaren 23an.–Alkatea, Victoriano Gabirondo Lanz.

UDAL HILERRIAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Udalak komenigarritzat jo du udal hilerriaren erabilera eta antolamendua arautzea. Nagusiki hura antolatzeko, sarbideak hobetzeko eta mantentze eta egokitze lanak egiteko makinak sartu ahal izateko.

Beste xede bat estetikoa da, berdegune bat egin nahi baita, atsegina, lorategiarekin, eta ahalegina egin nahi baita kokatutako sinboloak berdintsuak izan daitezen, batzuen eta besteen arteko aldea nabarmenegia izan ez dadin, heriotzaren aurrean tratamendu berdintsua ematearren.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Iturmendiko Udalaren hilerria jabari publikoko ondasuna da, zerbitzu publiko akonfesional bati atxikia; haren titularra Udala da eta hari dagozkio bere administrazioa,

zuzendaritza eta zainketa, beste agintaritza eta erakundeen esku den hartan izan ezik.

2. artikulua. Udalari dagozkio:

- a) Hilerria zaindu, garbitu eta egokitzea.
- b) Nitxoan eta gainerako zerbitzuen antolaketa, banaketa, erabilera eta aprobetxamendua.
- c) Hilobiak ehorzketarako erabiltzeko eskubideen lagapena.
- d) Ordenantza honetan ezarritako eta geroan legez ezartzen diren tasak eta eskubideak jasotzea.
- e) Eman diren edo etorkizunean ematen diren osasun neurriak betetzea.
- f) Bere zerbitzuko langileak izendatzea eta kargutik kentzea.
- g) Hilotzak eta gorpu-hondakinak ehortzi, hobitik atera eta lekuz aldatzeko lizentziak ematea, hilotzen gaineko osasun arauari jarraikiz.
- h) Zerraldo, arropa, jantzi, hil-oihal eta bestelako gauzakien hondarrak suntsitzea, gorpuzkiak izan gabe ere hilobiak hustu eta garbitzerakoan agertzen direnak.
- i) Hilobien eta kolunbarioen tokia antolatzea; horretarako gorabeheren erregistro eguneratua izanen da.
- j) Hilerriarekin eta hilotzen gaineko osasun jarduerarekin zerikusia izan dezaketen Udalaren bestelako administrazio eskumenak.
- k) Erregelamendu hau betetzen dela begiratzea eta, hala ez bada, zehatzea.

3. artikulua. Udal hilerrian leku aldetik dauden eskasiak direla-eta, Iturmendin erroldaturik dauden guztiek izanen dute nitxo batean bertan ehortziak izateko eskubidea, baldin eta erroldaturik daudenetik heriotzaren eguna arte urtebete baino gehiago iragan bada.

Aldiz, Iturmendin erroldaturik ez daudenendako edo hiltzen diren egunean erroldan urtebetekoa baino antzintasun gutxiago dutenendako, Udalari eskatu beharko zaio ehorzketa eta berak erabakiko du nitxoa ematen ahal zaion ala ez, kontuan harturik beharrak zein diren eta zenbat nitxo dauden eskura. Hala izanagatik ere, behar den tasa ordaindu beharko da, ehorzketa ahaide erroldatu baten nitxoan egin behar bada ere.

II. TITULUA

Langileak

4. artikulua. Hilerraren zainketa eta zaintza arduradunaren lana dira. Hona hemen haren eginkizunak:

1. Hilerriko ateak ireki eta ixtea, beharrezkoa denean.
2. Nitxoak, hilobiak eta kolunbarioak egokitzea, gorpuzkiak sartzeko eta horiek hermetikoki ixtea.

3. Partikularrei udal lizentzia eraskusteko eskatzea, edozein obra egin ahal izateko (14. art.).
4. Esparrua garbitu eta zaintzea, behar bezain segur, xahu eta apain egon dadin.
5. artikulua. Ez dagokio Udalari ez eta udal langileari ere, gurutzeak, hilarriak eta harlauzak jartzea, ez eta hilobiaren buruan beste edozein apaingarri paratzea ere.

III. TITULUA

Hilerriko barne antolamendua eta gobernua

1. ATALA

Gai orokorrak

6. artikulua. Hilerria Udalak erabakitzen dituen orduetan egonen da zabalik, urtaro bakoitzaren ezaugarrien ariora.
7. artikulua. Gauaz espresuki debeku da hilerriaren esparruan edozein lan mota egitea, non ez diren salbuespenekoak eta behar bezala arrazoituak.
8. artikulua. Ehorzketak ohiko ordutegiaren barnean egingen dira. Hala ere, hilaren ahaideek lurperatzeko orduaren berri eman beharko diote alde zurretik arduradunari.
9. artikulua. Erabat debekatuta dago makinak, automobilak, motozikletak, bizikletak eta edozein motatako animaliak, lagun egitekoak salbu, sartzea, non eta ez diren bereziki baimendu.
10. artikulua. Udalak, estatistiketako aurreikuspenei jarraituz, lurpeko nitxoak eraikiko ditu, Udalaren beharren eta egokieraren arabera. Indarrean diren osasun arabei eta legeak eskatutako neurriei lotuko zaizkie, eta guztiek zenbakia izanen dute.
11. artikulua. Definizioak, ezaugarriak eta luze-zabalak.

1. Hiru ehorzketa mota daude:

- a) Kanpoko nitxoak: eraikuntza hauek hiru mailatan banatutako zulo ilarek osatzen dituzte, goratuak eta banakoendakoak dira, eta hilerriaren ekialdean kokatzen dira.
- b) Hilobia: lurpean dauden nitxoak dira eta ohiko lurperatzeak ordezkatzeko dituzte.
- c) Kolunbarioak: apalen gisara kokatutako nitxo txikiak dira, bertan errauts-kutxatila edo hilobietako hezur hondarrak uzteko; lagapen epea beteta ehorzketa berriak egiteko erabiliko dira edo Udalaren jarduketaren batek eraginen die, hala nola, nitxoak paratzea, sarbideak berrantolatzea edo konponketa edo berritze lanen bat.

Ehorzketa guztietan, bai kanpoko nitxoetan, bai hilobietan edo kolunbarioetan, desordenik ez izateko, ordena zorrotz eta korrelatiboa ezarriko da eta ezin izanen da senideren batena edo ordena horretan ezarritakoaz besteko pertsona batena erabili, epea bukatu bada ere.

Kolunbarioen kasuan, espazio berean zenbait hildakoren gorpuzkiak gorde ahalko dira, lagapen-hartzaileek horrela nahi badute, eta ehorzketetan bezala, ordena eta erregistro bat erabiliko dira.

2. Hilarriak, gurutzeak edo bestelako apaingarriak Udalak ezarritako arauetara lotuko zaizkie eta hilobien buruan, soilik bertikalean jarri ahalko dira.

a) Ez dira finkoak izanen eta aise desmuntatuko dira.

b) Hilobien gainazala beti erabat garbi eta libre geldituko da, makinak pasatzeko, eta ezin da aitzurrik, motokultorerik eta abarrik erabili lurra mugitzeko, ez eta landareak landatu edo ereiteko ere, eta ezin izanen da inolako harlauzarik edo plakarik paratu.

c) Debeku da, era berean, hilobien inguruan hesiak edo itxiturak, landaresiak edo bestelako landareak jartzea.

Neurriak.

–Neurriak nitxo prefabrikatuen zuloetakoak izanen dira.

–Gurutze, hilarri eta abarren gehieneko altuera 80 cm izanen da, lurzorutik abiatuta; elementu bertikal horien euskarrien gehieneko neurria (hormigoizko plaka, marmolezko edo harrizko oina eta abar) 60 cm zabal bider 15 cm hondoa izanen da, eta lurperaturik nahiz lur gainean jarri ahalko dira. Azken kasu horretan, haren altuera gehituko zaio elementu bertikalari, bien artean gehienez ere 80 cm egin arte.

Neurriak nahitaez bete beharko dira, bai hilobi berrietan bai egungoetan ere, baldin eta ordenantza hau behin betiko onesterakoan oraindik jarri gabe badaude eta etorkizuneko aldaketetan ere. Zerbait aldatu, obraren bat egin edo norbait ehorzten den aldiro, araudi berri honi jarraituko zaio.

12. artikulua. Ehorzteko toki gutxi dagoela kontuan hartuta, eta pertsonak heriotzaren aurrean berdinak garelako filosofiari jarraituz, ezin da panteoi gehiago eraiki.

13. artikulua. Hilobietan paratu edo idatzi nahi diren hilartitzak, oroigarriak eta ikurrak begirunetsuak izan beharko dira eta lekuarekin bat egiten dutenak.

14. artikulua. Udalak ez du erantzukizunik bere gain hartuko, zerbitzuarekin zerikusirik ez duten pertsonak hilobiak edo haien gainean uzten diren gauzak ebatsi edo narriatzen badituzte.

2. ATALA

Obrak eta berrikuntzak

15. artikulua. Hilobien edo kolunbarioen lagapen-hartzaileek hobekuntza lanak egin nahi badituzte, behar den obra lizentzia eskatuko diote Udalari. Horretarako, eskatutako obra zertan datzan zehaztu beharko dute eta krokisa ere erantsiko dute. Gurutzeak, hilarriak, oroigarriak, harlauzak eta abar ezarri edo aldatzea “obratzat” hartuko da.

16. artikulua. Udalak hilobiren bat kendu behar badu, hilerria berritzeagatik edo ixteko erabakia ez den beste arrazoi batengatik, lagapen-hartzaileari gorpuzkiak kolunbario batean gordetzeko aukera eskaini ahalko dio.

IV. TITULUA

Ehorzketa eskubideak

17. artikulua. Ehorzketa eskubidearen lagapenak ez du salmentarik sortzen. Familiak uzten duen hilobi oro Udalaren jabari osora itzuliko da.

18. artikulua. Ehorzketa eskubideaz eta kolunbario batez baliatzeak behar den tasa edo ordainarazpena ordaintzea dakar berarekin, I. eranskinean edo geroagoko osoko bilkuretan hartzen diren erabakietan ezarritakoari jarraikiz.

19. artikulua. 1. Hilobi mota guztien gaineko ehorzketa eskubidea, horrela ezarrita dagoenean, 10 urtera iraungiko da, hobiratzea gertatzen den egunetik hasita.

2. Epe hori iragandakoan, kontzesioa besterik gabe iraungiko da, eta horrek esan nahi du hilobia libre eta beste hobiratze baterako prest gelditzen dela. Espazio hori erabiltzeko beharrik ez dagoen bitartean, dagoen bezala utziko da eta ez da bertatik ezer kenduko.

20. artikulua. Ez da inoiz eta inola ere epe mugarik gabeko lagapenik emanen.

21. artikulua. Ezin izanen da hilobirik ireki bost urte iragan arte azken ehorzketaz geroztik edo indarrean den legedian ezartzen den epean.

22. artikulua. Hilobien kontzesio epea iraganik eta hura beste ehorzketa baterako erabili behar bada, senideek kolunbario bat eskatu ahalko dute 20 urterako lagatzeko, dagokion tasa ordainduta, eta epe hori beste 20 urtera luzatu ahalko dute. Ez badute halakorik nahi, hilerriko arduradunak gorpuzki horiek hezurtegi orokorrera eraman ahalko ditu.

23. artikulua. Egungo panteoien titulartasuna Iturmendiko Udalarena da eta, beraz, beharrezkoa bada, kendu ahalko ditu, lurpeko nitxoak egiteko edo beste erabilera bat emateko, hala nola, hezurtegi orokorra. Horretarako, senideak edo maite diren pertsonak ehorztekko azkenekoz erabili zituztenei abisatuko zaie.

V. TITULUA

Hilerriko hilobien erregistroa

24. artikulua. Hilerrian egiten diren hilobi eta zerbitzuen erregistroa sortu da, honako hauek jasoko dituen:

a) Hilobien identifikazioa.

b) Ehorzketa eguna.

c) Hildakoaren izen-deiturak.

d) Eskualdaketak, data, titular berriaren datuak eta eskualdaketaren zioa.

e) Ehorzketak, hobitik ateratzeak eta tokiz aldatzeak, honako hauek adieraziz: zein hilotz den, pertsona horren izen eta deiturak, eta jarduketa noiz izan den.

f) Gertaerak eta erreklamazioak: hilobia edo haren ingurua ukitzen duen beste edozein gertaera.

Udaleko Idazkaritza arduratuko da erregistroaz. Beharrezko neurriak hartuko ditu, datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe tratatzea edo inor sartzea eragozteko.

Inskripzioetan akats materialik bada, ofizioz zuzenduko da, akatsa argi eta garbi adierazi eta zuzentzeko idatzohar berria eginez.

25. artikulua. Lagapenak eta aprobetxamendua honako hauengatik ere iraungitzen eta/edo amaitzen ahalko dira:

a) Hilerria desagertzeagatik.

b) Interes publikoagatik eta/edo berritu beharagatik.

V. TITULUA

Erregelamendu honen arauak ez betetzea

26. artikulua. Udalak zehatzen ahalko du Ehorzketa zerbitzuak arautzen dituen ordenantza honen edozein artikulua betetzen ez duena.

27. artikulua. Hilarriak eta gurutzeak egitean, ezarritako neurriei jarraituko zaie. Hala ez bada, ahaideek aldatu beharko dituzte, indarra duen araudira egokitzeko. Hala egiten ez bada, lana Udalak egingen du eta kostua ahaideei pasatuko die.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.–Zerbait aldatu, obraren bat egin edo norbait ehorzten den aldiro, araudi honi jarraituko zaio. Beraz, ehorzketa bat egiten den hurrengoan, araudi hau bete beharko da.

Bigarrena.–Ez da erabileraren lagapenaren luzapenik egingen panteoietako hilobietan eta lurreko tradiziozko hilobietan.

Hirugarrena.–Kendu egin da panteoietan ehorztekoko aukera, bai eta lurrean tradizioz egin den bezala ehorztekoa ere.

Laugarrena.–Iraungitzeko:

A) Panteoia: eraikuntza honen barnean familia bateko zenbait kide hobiraturik daude; haien gorpuzkiak banakoendako apal goratuetan paratzen dira. Iraungitzeko eraikuntzak dira eta Udalak du haien jabetza. Araudi hau idazterakoan ez dago erabileraren lagapenik eginda eta, beraz,

ordenantza hau behin betiko onesten den egunetik debekatuta dago haietan ehorzketarik egitea eta ez da erabileraren luzapenik eginen inongo kasutan.

b) Lurpeko hilobiak: tradiziozko ehorzketak dira, banakoendakoak, zuzenean lurrean egiten direnak. Ehorzketa modu hau egiteko aukera behin betiko ezabatu da, pixkanaka lurpeko nitxoekin ordezkatzeko. Orobat, xede hori lortzearren, ez da erabileraren lagapenaren luzapenik emanen.

AZKEN XEDAPENAK

Lehendabizikoa.—Udalak behar adinako informazioa emanen du xedapen hauen edukiori eta aplikazioari buruz.

Bigarrena.—Ordenantza honek indarra hartu eta ondorio juridiko osoak sortuko ditu, haren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondotik.

Hirugarrena.—Udalak badu ahalmena behar diren xedapenak emateko, erregelamendu hau garatu eta aplika dadin.

Laugarrena.—Aurreikusi ez den orotan, Hilotzen gaineko Osasunari buruzko urriaren 15eko 297/2001 Foru Dekretuan eta bat heldu diren gaur egungo gainontzeko arauetan aurreikusitakoari jarraituko zaio; bestela, Udalak erabakitzen duenari.

HILERRIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua. Hilerraren erabilerari dagozkion tasen ordainarazpena arautzen du ordenantza honek, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 5, 7. eta 100. artikuluetan eta ondokoetan du oinarria.

2. artikulua. Zergapeko egintza hilerrian zerbitzuak ematea da, bai hilotzak ehorzteari zein hobitik ateratzeari eta nitxoak, hilobiak eta kolunbarioak esleitzeari dagokionez bai hilerrian haiekin batera egiten diren gainerako zerbitzuak egiteari dagokionez, Udalaren hilerria arautzen duen ordenantzan ezarritakoarekin bat.

3. artikulua. Subjektu pasiboa: zerbitzua eskatzen duen pertsona natural edo juridikoak ordaindu beharko du dagokion tasa, subjektu pasibo gisa.

Ehorzteko eskubideen ordainarazpenetan, ehorzketak antolatu edo hilotzak hilerrira eramaten dituzten ehorztetxeak dira zergadunen ordezkoak.

4. artikulua. Zerga-oinarria finkatuko da ordenantza honen I. eranskinean jasotako kopuruei jarraikiz, ondotik zehaztuko diren kontzeptuei dagozkien zerbitzu moten arabera:

a) Lurperatzeko edo ehorzteko eskubideak. Zenbateko finkoa ehorzketagatik, segun eta kanpoko nitxoan, hilobian edo kolunbarioan egiten den.

b) Hondarrak hobitik ateratzeko eskubideak.

c) Nitxoan, hilobien edo kolunbarioen kontzesioak.

Tributu-kuota eta zerga-oinarria berdinak dira.

5. artikulua. Ordenantza honen 2. artikuluan aipatzen diren zerbitzuetako bat egiteko eskatzen denean gertatuko da tasen sorrarazpena.

6. artikulua. Kuoten ordainketa 30 egun naturaleko epearen barrenean egin beharko da, ordenantza honetan ezarritako zerbitzuak egin eta haien kostua jakinarazi ondoko egunetik aitzina kontatzen hasita.

7. artikulua. Kuotak borondatez ordaintzeko aldietan ordaintzen ez dituztenek, Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren gaineko Erregelamenduan eta aplikatzekoa den tributuei buruzko gainerako araudian adierazten diren errekarquak izanen dituzte.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta aplikatzekoa den tributuei buruzko gainerako araudia aplikatuko dira.

I. ERANSKINA

Ehorzketa eskubideen eta kolunbarioen tasak

Ehorzketak eta hobitik ateratzeak.

1.–Kanpoko nitxoetan:

1.1. Iturmendin erroldatua: 100 euro.

1.2. Erroldatu gabea: 200 euro.

2.–Hilobian:

2.1. Iturmendin erroldatua: 150 euro.

2.2. Erroldatu gabea: 300 euro.

Nitxoaren lagapena (10 urteko eperako).

1.–Kanpoko nitxoetan edo lurpekoetan, prezioa urteko:

1.1. Iturmendin erroldatua: 10 euro.

1.2. Erroldatu gabea: 20 euro.

Kolunbarioa (20 urteko eperako).

1.–Lehenengo lagapena, prezioa urteko:

1.1. Iturmendin erroldatua: 10 euro.

1.2. Erroldatu gabea: 20 euro.

2.–Bigarren lagapena eta hurrengoak, espazio berean:

2.1. Iturmendin erroldatua: 5 euro.

2.2. Erroldatu gabea: 10 euro.

Oharra kolunbarioei buruz: lagapenak eta haien tasak banakakoak dira; hau da, kolunbario beraren bigarren lagapenean edo hurrengoetan, azken lagapenaren prezioa gehituko zaie aurrekoei, haien epearen barnean bat egiten badute.

Tasen ordainketa bakarra egingen da, denboraldiari dagokion zenbateko osoa ordainduz, lagapena eskatu eta eman ondotik.

Iturmendin, 2016ko abuztuaren 23an.–Alkatea, Victoriano Gabirondo Lanz.

Iragarkiaren kodea: L1611326